

PYRENAICA

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA | FEDERACIÓN VASCA DE MONTAÑA

NAFARROA BEHEREA | CAZAFANTASMAS | CANTERAS MOLERAS | VÍA FRANCÍGENA | MONT BLANC | ESLOVAQUIA | ESCALADAS PIRENAICAS

Nº 273 | 4ª de 2018

PYRENAICA

NAFARROA BEHEREA

Los Cazafantasmas | Canteras moleras en Gorbeia | Tras las huellas de Martín Llamazales

La Vía Francígena | Tour de Mont Blanc | Eslovaquia
Escaladas pirenaicas de dificultad moderada | Pamir mendietan zehar gurplekin bidaiari
Mendiaren irudia Euskal Herriko literaturan | Juventus S. D.



Nº 273 | 4ª DE 2018 | 5,10 €

1926tik | desde 1926

Suscríbete a / Harpidetu zaitez

PYRENAICA

Año 2019 (4 números / zenbaki)

Prezioa: 18€



Ingresa el importe en
la c/c ES24 3035-0072-00-0720030006 de Laboral Kutxa
y envía a contacto@pyrenaica.com:
Nombre, domicilio, teléfono y correo electrónico.

Laboral Kutxako ES24 3035-0072-00-0720030006 k/k
dirua sartu eta
contacto@pyrenaica.com helbidera bidali:
Izen deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.

LEHIAKETAK · CONCURSOS

XXXVI CONCURSO DE ARTÍCULOS DE MONTAÑA (2019)

Participan los artículos en euskera o castellano que se publiquen en Pyrenaica durante 2019, seleccionados entre todos los recibidos. Los artículos han de aportar novedades sobre lo publicado en cualquier medio y ajustarse a la normativa de Pyrenaica (ver en www.pyrenaica.com).

Primer premio: 500 €. Segundo premio: 350 €. Tercer premio: 200 €

XXXVI MENDI ARTIKULUEN LEHIAKETA (2019)

2019an zehar Pyreinaican euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzi eta argitaratutako artikuluek parte hartuko dute. Artikuluak originalak izatea baloratuko da eta Pyreinaicaren arauekin bat etorriko dira (ikus www.pyrenaica.com).

Lehen saria: 500 €. Bigarren saria: 250 €. Hirugarren saria: 150 €

XXXVII CONCURSO DE FOTOGRAFÍA DE MONTAÑA (2019)

Participan las fotografías que se publiquen en Pyrenaica durante 2019, excepto las que forman parte de artículos. Se enviarán como máximo cuatro fotografías digitales no publicadas en otro medio. Tamaño: 18 cm en su lado más largo. Resolución: a 300 ppp/dpi, espacio de color RGB. Formato de archivo: jpg. No se interpolarán los archivos ni se añadirán máscaras de enfoque.

Primer premio: 350 €. Segundo premio: 250 €. Tercer premio: 150 €

XXXVII MENDI ARGAZKIEN LEHIAKETA (2019)

2019an zehar Pyreinaican argitaratuko diren argazkiek parte hartuko dute, artikuluetan agertzen direnak izan ezik. Gehienez lau argazki bidaliko dira beste komunikabide batean argitaratu gabeak. Tamaina: 18 cm bere alderik luzeenean. Erresoluzioa: 300 dpi-tan, RGB kolore-espazioa. Artxibo-formatua: jpg. Ez dago artxibategiak tartekatzerik ezta enfoke-maskarak gehitzerik ere.

Lehen saria: 350 €. Bigarren saria: 250 €. Hirugarren saria: 150 €

ENVÍO DE ARTÍCULOS Y FOTOGRAFÍAS

INCLUIR: Nombre y Apellidos del autor/a, dirección, email y tfno de contacto.

ENVIAR A: contacto@pyrenaica.com (Asunto: Concurso Pyrenaica) o a: Pyrenaica. Julián Gaiarre, 50-trasera. 48004 Bilbao.

Los trabajos recibidos quedarán en propiedad de Pyrenaica y no podrán publicarse en otro medio hasta su devolución. Los premios se entregarán en la Gala del Montañismo Vasco de 2020. La participación en el concurso implica la aceptación de estas bases; las dudas serán resueltas por el Jurado.

ARTIKULU ETA ARGAZKIEN BIDALKETA

Izen-deiturak, helbidea, e-posta eta harremanetarako telefono zenbakia.

BIDALI: contacto@pyrenaica.com (Gaia: Pyrenaica Lehiaketa) edo: Pyrenaica. Julian Gaiarre, 50 trasera. 48004 Bilbo.

Aurkeztutako lan guztiak Pyrenaica aldizkariaren jabetzapean geratuko dira, beste edozein hedabidetan argitaratzerik egongo ez dela, harik eta itzuliak izan arte. Epaimahaiaren erabakia eta sari banaketa 2020ko Euskal Mendizaletasunaren Galan egingo da. Lehiaketan parte hartzeak berak, honako oinarri hauek onartzen direla adierazten du. Oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantzak Epaimahaiak ebaziko ditu.

Viajes diferentes para Viajeros diferentes

Visítanos y descubre nuestras propuestas

Salidas EXCLUSIVAS Viajes en GRUPO

Grupos INVIERNO y FIN DE AÑO  Club Marco Polo
(India, Birmania, Tailandia, Jordania, Irán, Omá, Sudáfrica...)

Salidas INVIERNO Club VIAJEROS AM
(Egipto, Colombia, Rumanía, Albania, Israel...)

Y muchas alternativas más

¿Qué es...?

Club
viajeros am

Grupos exclusivo Azul Marino
Salidas Garantizadas
Con Guía Acompañante al grupo
Grupos reducidos, ambiente positivo
Condiciones Preferentes en destino
La mejor relación Calidad - Precio

CIE: 1043


azul marino
viajes

BILBAO • c/ Ayala, 2 (esquina Hurtado de Amézaga) • 48008 • bio@viajesazulmarino.com • 944 230 223

VITORIA - GASTEIZ • c/ Adriano VI, 5 • 01008 • vit@viajesazulmarino.com • 945 162 090

DONOSTIA- SAN SEBASTIÁN • c/ Zubieta, 1 • 20007 • ss@viajesazulmarino.com • 943 461 717

PAMPLONA • c/ Olite, 34 • 31004 • pna@viajesazulmarino.com • 948 227 322

Y también en MADRID • BARCELONA • ZARAGOZA • SANTANDER • GIJÓN • LOGROÑO • SEVILLA • VALENCIA • ALICANTE...

902 101 200  606 084 216

azulmarinoviajes.com



Montañas cercanas Gertuko mendiak



Montañas lejanas Urrutiko mendiak



5 EDITORIAL

6 NAFARROA BEHEREA

7 IBILBIDE

Mikel Arrizabalaga

18 LOS CAZAFANTASMAS

MONTAÑEROS A LA BÚSQUEDA DE COTAS DE 3000 m
NO RECONOCIDAS EN LA LISTA DE BUYSE

Carles Giné-Janer

26 CANTERAS MOLERAS EN GORBEIA

Javier Castro · Iñaki García Uribe

32 TRAS LAS HUELLAS DE MARTÍN LLAMAZALES

CIRCULAR A TRAVÉS DEL PICO NIAJO

Julio Diego Iraeta

37 FOTOGRAFÍA

Martín Zalba

38 LA VÍA FRANCÍGENA

EL CAMINO DE PEREGRINOS QUE VIENE DE FRANCIA

Patxi Ayastuy

46 TOUR DE MONT BLANC

PARA SESENTONES

Cecilia Pérez-Sostoa · Carlos Álvarez Alonso

52 ESLOVAQUIA

LOS OTROS TATRAS

M^a Begoña Fernández · Paulo Etxeberria Ramírez

57 FOTOGRAFÍA

Trini Grases

Eskalada eta BTT



Actualidad Berriak



- 58** ESCALADAS PIRENAICAS
DE DIFICULTAD MODERADA
Isa Casado Gallego
- 68** PAMIR MENDIETAN ZEHAR GURPILEKIN BIDAIRI
Eneko Redondo
- 74** MENDIAREN IRUDIA EUSKAL HERRIKO LITERATURAN
Haritz Monreal
- 78** EL CLUB JUVENTUS S.D. CELEBRA EL 75º ANIVERSARIO
- 83** FOTOGRAFÍA
Carlos Mediavilla

- 84** AGENDA Andoni Arabalaza
- 86** CARRERAS POR MONTAÑA Alberto Mella
- 88** EMF BERRIAK · NOTICIAS FVM
- 94** PUBLICACIONES · ARGITALPENAK

PUBLICACIÓN TRIMESTRAL DE EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Se publica desde 1926

OCTUBRE-NOVIEMBRE-DICIEMBRE
N.º **273** - 4.º de 2018

Edita: Euskal Mendizale Federazioa
Presidente: Jose Ramón Alonso Rodrigo
Directora: Luisa Alonso Cires

Equipo de Redacción: Mikel Arrizabalaga, Gorka Azkarate, Javier Benito, Joana García, Ana González, Ricardo Hernani, Arantza Lazurtegi, Ivan Ruiz, Fernando Tijero

Administración: Gotzone Rodríguez
Redacción, Administración y Publicidad:
Julian Gayarre, 50 - 48004 Bilbao
Teléfono: 944 598 102 Fax: 944 598 194

Horario: De lunes a miércoles
de 16:00 a 19:00 horas.

Mapas, maqueta y preimpresión: SUA EDIZIOAK

Diseño: Amel Mendizabal [Sua Edizioak]

Imprime: Gráficas Leitzarañ

Envíos: Lantegi Batuak - Gupost.
Araba Kalea 2, Etxebarri (Bizkaia)

E-mail: contacto@pyrenaica.com

Déposito Legal: BI-858-1979
ISSN: 0212-5676

© PYRENAICA

La propiedad intelectual y el copyright de los textos y fotografías pertenecen a sus autores/as por lo que, salvo acuerdo expreso con ellos/as o con Pyrenaica, queda prohibida toda reproducción total o parcial de los mismos.

Testu eta argazkien jabetza intelektual eta copyright-a egileenak dira, beraz egile edota Pyrenaicaren baimenik gabe, debekatuta dago artikuluen zati baten edo erreprodukzio osoa egitea.

www.pyrenaica.com

Fotografía de portada: Hilarrietako jentil-baratzeak - Fernando Asiain Larrea

Deja el coche y viaja a pie...

(Semana Santa 2019)

Trekking

..... Marruecos

**Trek del Atlas,
Jebel Sahgro.**

(22 de abril, 10 días)

..... Montenegro

**Caminando
por los Alpes
Dináricos.**

(22 de abril, 10 días)

..... Cabo Verde

**A pie
por las islas
de Fogo y Santiago.**

(22 de abril, 10 días)

..... Turquía

**Trek Costa Licia
Caminando por la historia.**

(22 de abril, 10 días)

(Fuera de temporada 2019)

Viajes

..... Yibuti-Danakil

**Depresión del Danakil,
la tierra de los afar.**

(1 de febrero, 15 días)

..... Sur y Norte de Chad

**P.N. de Zakouma
y montañas de Ennedi.**

(6 de marzo, 20 días)


banoa

www.banoa.com

Ronda de Sant Pere 11, àtic 3ª
08010 BARCELONA
Tel: 93 318 9600
e-mail: ben@banoa.com

Ledesma 10 - bis, 5ª
48001 BILBAO
Tel: 94 435 5119
e-mail: bio@banoa.com

BALTISTAN FUNDAZIOA



Esta fundación lleva más de
15 años apoyando a las
personas del valle de Hushé,
al norte de Pakistán.

Mediante su campaña anual
de bonos da a 600 niñas la
oportunidad de poder
estudiar

AYÚDANOS Y SÉ PARTE DEL PROYECTO

COMPRA TU BONO DE 50€

2095 0000 70
9116423251
Desgrava el 30%
En caso de
empresa o
autónomo el
46%



GURE IZAERA IKURREN ETORKIZUNA

Esku artean daukagu Pyrenaica aldizkariaren ale berri bat, eta aldizkaria argitaratu dadin lanean dihardugunok harrituta gaude, beste behin ere miraria gertatu delako: mendian iharduerak egin ohi dituen lagun talde batek denbora eskaini dio iharduera horien gainean idazteari, bizi izandako zirrarak hobekien isladatzen dituzten argazkiak aukeratzu eta testu zein irudiak aldizkarira bidaliz.

Pyrenaica aldizkariak mende bateko historia dauka dagoeneko, eta ibilbide hori osatu badu, ehunka lagunek musutruk egindako borondatezko lanari esker izan da. Ordainsaririk gabeko lan egiteko modu berezia da gurea, mendizaleon komunitatea osatzen dugun guztion zerbitzura dagoena, mendizaletasuna gure herrialdean hedatu dadin. Elkarlanean oinarritzen den lan egiteko modu hau antzekoa da, bestalde, klubak eta federazioen kudeaketa bideratzeko orduan. Horrela, elkarlana bilakatu da, azkenean, euskal mendizaletasunaren ezaugarri ezagunenetako bat.

EMF-ren esparru ezberdinetan modu honetan lan egiten dugunok ederki dakigu guztia ondo joan dadin konpromisoak etenik gabekoa behar duela izan: ezin dira denbora edo motibazio eza bezalako aitzakiak jarri, eta debekaturik dago alperkeriaren atzaparretan erortzea. Azken batean, balore ezagunetan oinarrituriko lan egiteko modu batez ari gara: konstantzia, etengabe trabak gainditzea, taldelana, erronka berrien bilaketa...

Honakoa da galdera: lan egiteko filosofia honek ba al du etorkizunik? Gure federazioko gazteek bat egiten al dute filosofia honekin, eta prest al daude lekukoa hartzeko? Izan ere, lan egiteko modu honen arrakastaren gakoa lan taldea etengabe berritzen joatea da, kateak aurrera jarraituko badu.

2014an, EMF-ren Batzar Orokorrean Pyrenaica aldizkariaren egungo ereduaren jarraipena eztabaidatu zen, eta aldizkaria gaur egun ezagutzen dugun moduan mantentzeko hautuak jaso zuen gehiengoaren sostengua. Zuzendaritzak eta erredakzio taldeak batzar hartan harturiko erabakia bete dadin lan egiteko erantzunkizuna daukate eta baita etorkizunean lanean arituko direnei erreleboa pasatzeko erantzunkizuna ere.

Orain dela 8 urte, Pyrenaica aldizkarian emakumezkoen partehartzea handitzeko plan bat jarri zen abian, EMF-ren ia %30a suposatzen duen multzo horren jarduna agerian jarri asmoz. Orduki, ale guztietan dago emakumezkoen presentzia. Erronka berri bat daukagu orain esku artean: gazteen presentzia handitzea.

Euren ihardueren berri izaten saiatzen ari gara, sare sozialetan jarraipena eginez, euren webgune eta blogak ikuskatuz eta argazkiak eta komentarioak Facebook bidez partekatuz. Horrela, mendiko euren esperientzien berri ematea atsegin duten gazte horiengana jotzea da gure xedea, aldizkariaren ateak zabalik dauzkatala jakinarazteko. Ez dugu urteen joanak ematen duen esperientzia albo batera utzi nahi, baina gure federazioan dagoen gazte kopuru handi hori modu egokiagoan ordezkaturik egon dadin bilatzen dugu. Beraien zirrarak eta motibazioak eza-gutzea ezinbestekoa zaigu, azken finean beraien eskuetan egongo baitira etorkizun hurbilean ez Pyrenaica aldizkaria bakarrik, baita euskal mendizaletasuna ere.

DIRECTORA DE
PYRENAICA

PYRENAICA
ALDIZKARIAREN
ZUZENDARIA



Luísa Alonso Cires

EL FUTURO DE NUESTRAS SEÑAS DE IDENTIDAD

Tenemos en nuestras manos un nuevo número de Pyrenaica y, una vez más, quienes trabajamos en la revista nos sorprendemos de que se haya producido el milagro: un grupo de personas que realizan actividades en la montaña se han tomado un tiempo para escribir sobre ellas, elegir las fotografías que mejor transmitan las emociones vividas, y mandar los textos y las imágenes a la revista.

Detrás de casi un siglo de Pyrenaica está la participación desinteresada de cientos de personas. Una forma singular de trabajo no remunerado al servicio de la comunidad montañera y de la divulgación del montañismo en nuestro territorio, un modelo colaborativo que se aplica también en la gestión de clubes y federaciones, lo que lo ha convertido en una de las señas de identidad más reconocibles del montañismo vasco.

Quienes trabajamos de esta manera en distintos ámbitos de la EMF sabemos que para que todo funcione el compromiso ha de ser constante, no se puede alegar desánimo o falta de tiempo, la apatía o la pereza son también enemigos que conviene mantener a distancia. Hablamos de un trabajo basado en valores conocidos: constancia, superación de obstáculos, trabajo en equipo, búsqueda de nuevos retos.

La pregunta es: ¿tiene futuro esta filosofía de trabajo? ¿la gente joven de nuestra federación la comparte, le parece bien, está dispuesta a coger el testigo? Porque el éxito de este modelo de trabajo necesita de la constante renovación de las personas para que la cadena continúe.

En el 2014, la Asamblea de la EMF debatió la continuidad del actual modelo de Pyrenaica y aprobó por mayoría seguir con la revista tal como la conocemos, incluyéndola en sus estatutos. Quienes formamos parte de la dirección y de la redacción tenemos la responsabilidad de trabajar en el presente de acuerdo a esa decisión y pasar el relevo a quienes lo hagan en el futuro.

Hace ocho años, se puso en marcha en Pyrenaica un plan para mejorar la participación de las mujeres en la revista, para visibilizar a quienes suponen casi el 30% de la EMF. Desde entonces, no hay un solo número en el que no estemos representadas. Ahora nos proponemos un nuevo reto: incrementar la participación de articulistas jóvenes.

Estamos al tanto de sus actividades en las redes, seguimos sus webs y blogs, compartimos sus fotos y comentarios en facebook. Así que nos dirigimos a todas esas personas jóvenes a las que les gusta divulgar sus experiencias en la montaña y les pedimos que participen en la revista. No queremos prescindir de la experiencia, pero buscamos que ese porcentaje importante de gente joven de nuestra federación esté mejor representado en la revista. Necesitamos conocer las emociones y motivaciones de quienes tienen en sus manos el futuro de Pyrenaica y el del montañismo vasco.

NAFARROA BEHEREA 7 IBILBIDE

Izaite bat ez daike

*Anai-arrebak, entzun ene aho hotsa:
izaite bat ez daike hezur hutsez osa:
herria da gorputza, hizkuntza bihotza
bertzetik berextean bitarik baxotxa
izaite horrendako segurra hilotza.*

Xalbador. *Herria eta hizkuntza*, 1976

Nafarroa Garaitik bereizi zenetik, herrialde honek izen desberdinak izan ditu. Euskaltzaindiak bi izen onetsita dauzka euskara batuan erabiltzeko: lehena, Nafarroa Beherea Axularrek 1643an lehendabizikoz erabili zuena eta bestea, berriz, Baxenabarre, Joanes Peruskik 1664an idatzitako gutun batean lehen aldiz azalduakoa. Frantsesa oso hedaturik egon arren, euskara da berezko hizkuntza, bertako biztanle gehienek euskaraz mintzatzeko gai dira, baina erabilerari dagokionez, Ipar Euskal Herriko beste bi lurraldeetan gertatzen den bezala, zaharren hizkuntza da gazteena baino.

Nafarroa Behereko orografia oso desberdina da, hegoaldea menditsua da eta iparraldea, aldiz, lauagoa. Pirinioetako mendiek muga egiten dute Nafarroa Garaiko lurrekin eta bertan kokatzen dira mendi ezagun eta eder asko: Okabe, Errozate, Adartza, Iparla, Munhoa, Jara, Behorlegituturru... Bi dira lurraldea zeharkatzen duten ibai nagusienak: Errobi eta Biduze. Lehena Errozate mendian du iturburua eta bigarrenak, berriz, Hoztako mendietan. Biak ala biak Aturri ibaiaren adarrak dira.

Zuberota eta gero, biztanle gutxien dituen Euskal Herriko lurralde honek historia luzea eta interesgarria du eta horren lekuko dira, besteak beste, bere orografian aurkituko ditugun historiaurreko monumentu megalitikoak eta leizeak, erromatarrek beren pasoa

utzitako aztarnak, Erdi Aroko baseliza, jauregi eta gazteluak edota Nafarroaren konkistaren lekuko isilak. 1530. urtea arte Nafarroa Garaiarekin bat eginda zegoen Nafarroa bakarra osatuz.

Lurraldea ezagutzeko hamaika aukera ditugu, makina bat ibilbide balizatu baitaude lurralde honen paisaia desberdinez gozatzeko eta bide batez, bere historia, kultura eta jendea bertatik bertara ezagutzeko. Artikulu honetan 7 ibilaldi proposatzen dira, mendialdekoak zein lurralde lauetakoak. Mendia, historia, kultura... guztietan gure jakinmina asetzeko osagai desberdinak aurkituko ditugu.

GAPELUKO ZIRKOA

Bidarrai eta Baigorri artean hedatzen den Iparlako harresia bi zirko bikainek mugatzen dute: Gapelukoa ezkerrean eta Talatzekoa eskuinera. Guk Gapelukoa osatuko dugu Talatzekoa beste baterako utziz. Iparlara igotzeko bide ederrena da eta harresia gainditzeko dagoen aukera bakarra bertan aurkitu ahal izango dugu, pasabide erraz batetik igaroz gailurrera iristeko.


Bastida auzotik abiatu eta Bordazar base-riaren ondotik ateratzen den pistari heldu eta berehala basoan murgilduko gara. Lehen bigurutzera iristean ezkerrean doan pista utzi

TESTU ETA ARGAZKIAK



Mikel Arrizabalaga
Aizpurua
(Donostia-Eibar, 1957)

Elkar Fundazioko kidea. Martin Ugalde Kultur Parkeko arduraduna izandakoa, egun Ikaslekar argitaletxearen edizio-zuzendaria da. Aurretik 17 urtez irakasle izana da Orereta eta Zurriola ikastoletan. Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu.



(bide hau itzulerako utziko dugu) eta aurrean duguna segituko dugu. Pista zabala xenda bihurtzen da eta laster helduko gara Abraku erreka igarotzeko dagoen egurrezko zubiaren ondora. Hau igaro eta garo artean zabaltzen den bidean barna altuera irabazten hasiko gara. Xendatik pista zabal batera atera eta hemen jarraitu nahi dugun bidea aukeratu beharrik zalantzak sortuko dizkigu. Ezkerrean joz gero, Gapeluko zirkoaren oinera gerturatuko ginatke, baina garo-lekua denez erraz galenezake bidea. Eskuinera, berriz, pista zabalak Garartzeko lepota eramango gintuzke eta



Arberoako muinoak

honen ezkerretik ateratzen den bideak Idokolepoan dagoen bordaren ondoan utzi. Gauzak horrela, bigarrena aukeratuko dugu.

Nafarroa Beherea eta Nafarroa Garaia banatzen dituen gandorreen zehar Iparlara igotzen hasiko gara

Artalde batzuk ere ikus daitezke inguruan eta beharbada horietakoren bat Erramun Martikorena, artzain eta kantari baxena-


bartarrarena izango da ziurrenik. Artzaina ogibidez, kantaria zaletasunez. Hark ondo ezagutzen baititu inguru hauek, maiz zeharkatu ditu Iparlako mendi magalak bere artaldearekin. Harentzat mendi hauek ez dute sekreturik, bere lanbidearen espazio eta etxe izan dira beti. Inguru ederrak, mendi-txoko paregabea.

Harresiak gaindiezina dirudi, baina mendi honek eskaintzen digun aukera bakarraz baliatuko gara heltzeko. Beraz, martxan jarri eta oso nabarmena den xenda jarraituz, malkarren oinetik poliki poliki Iparlako korridorera

gerturatuko gara. Bat batean, bide leun eta eroso norabidez aldatu eta malda piko eta gogorra bihurtuko da. Berrehun metroko desnibela duen aldapa gogor honetan izerdi franko botako dugu. Langa txiki bat igaro eta azken metroak bete ostean, 90. mugariaren ondora iritsiko gara. Nafarroa Beherea eta Nafarroa Garaia banatzen dituen gandorreen zehar Iparlara igotzen hasiko gara segidan. Bidean GR-10ari dagozkion seinale zurigorriak ikusiko ditugu eta azken metroak belarrezko alfonbra zapalduz beteko dugu. Iparla talaia paregabea da Euskal Herriko mendi gehienak



Oilarandoiko kapera



ezezik iparraldeko kostako eta barruko herriak ikusteko.

Itzultzeko unea iristean, GR-10ari dagozkion bide-seinaleak jarraituko ditugu eta Gapeluko lepora heltzean metro batzuk bete beharko ditugu Tutuluako gailurrera iristeko. Iparla eta Tutuluia dira Gapeluko zirkoa mugatzen duten bi gailurrak. Azkar galduko dugu altuera eta Harrietako lepora iristean Urdozera doan bidea aukeratuko dugu, GR-10 utziz. Basoan zehar zabaltzen den bidetik Sarosarreko bordaren ondora helduko gara. Puntu honetan Urdoze-

ra doana utzi eta gure ezkerrera ateratzen den pista zabala hartuko dugu. Larrarteko lepotik Gapeluko zirkoaren ikuspegiarik zabalena izango dugu, baita ere igotzeko erabili dugun bidearena. Pista zabal honek hasieran igaro dugun bidegurutzera eramango gaitu eta hortik abiapuntura, Bastidara.


OILARANDOIKO KAPERA

Kantonamenduko hiriburua den Baigorriin emango diogu hasiera ibilaldiari herriko monumentu ezagunenak bisitatzeko aukera amaierarako utziko dugularik. Udaletxearen aurrean ibilgailua utzi eta GR-10aren bide-seinaleek erakutsiko digute jarraitu beharreko bidea. Eskuinean Iparlako harresia goititzen delarik berehala helduko gara Aldudetik datorren Errobi ibaiaren adarra gainditzeko zubira. Gure eskuinean zubi "erromatarra" ikusiko dugu. Metro gutxi batzuk bete eta ezkerretik jarraitu, errepidea azpitik pasa eta maldan gora jarriko gara. Bidegurutzetan seinale zurigorriek lagunduko digute bide zuzena aukeratzen.

Asfaltatutako bidea amaitu eta lurrezko pista batetik igotzen jarraituko dugu basoan zehar. Balizatutako bidearen malda gogorrenak gainditu eta gero, Ahartza leporaino igotzen den errepide txikira iritsiko gara. Puntu honetan, GR-10ak norabide berria hartzen du, ezkerretik igotzen da Oilarandoiko magalean zehar, baina guk hau itzulerako utzi eta GR-10aren bide zaharretik egingo dugu aurrera. Errepidearen eskuinetik eta honen azpitik hedatzen den pista zabaletik egingo dugu aurrera, hasieran aldaparik gabe, baina gero malda gogortu egingo da errepidera atera aurretik.

1740 eta 1792 urteen artean ermita hau okupaturik egon baitzen eta 1789 iraultza eta gero, suntsitua izan zen

Errepide hestutik beteko dugu hurrengo tartea eta lehen bihurtunera iristean, hau utzi eta ezkerretik gorantz joko dugu, mendia gain aldean ikusiko dugun kapera-



rantz. Malda pikoa gainditu eta haitzez inguraturik dagoen Oilarandoi kaperara helduko gara. 1706an, haraneko 11 herrietako etxeko jaunak biltzen zituen Baigorriko Gorte Nagusiak Oilarandoi mendiaren tontorrean ermita bat ezartzea erabaki zuten. Bertan egoten ziren ermitauei otoitz egitea eskatzen omen zitzaizkien zerutik etor zitezkeen txingor eta ekaitzetatik babesteko. 1740 eta 1792 urteen artean ermita hau okupaturik egon baitzen eta 1789 iraultza eta gero, suntsitua izan zen 1941ean, J. Olhagaray apaizak kapera berri bat eraikitzea erabaki eta urtebete berandua go, 1942an inauguratu zuten. 1985ean, berriz, eguraldi txarraren eta gizakiak sortutako kalteen ondorioz, ermita goitik behera berritu egin zen.

Ikuspegi paregabeaz gozatu ostean, maldan behera Ahartza leporaino jaitsiko gara. Puntu

Izurako lurrak



honetan, ezkerretik datorren xenda balizatua (GR-10 berria) bilatuko dugu eta Oilarandoiaren magala puntatik puntara zeharkatuz errepide-ira itzuliko gara, igoerako erabili dugun bidearekin bat eginez. Puntu honetatik herriraino igotzeko erabili dugun bide berbera erabiliko dugu. Beherakoan, aurrez aurre ikusiko dugu Etxauzko gaztelu ederra. Jatorriz Erdi Arokoa bada ere, XVI. mendean eraiki zuten. Herrira jaistean, Doneztebe elizara joango gara eta atzean utzi eta gero, ibaia zeharkatuko dugu gertu dagoen zubitik. Ibaia-aren paraleloan jarraitu eta berehala helduko gara zubi "erromatarraren ondora". Nahiz eta erromatar hitza izan izenean, 1661ean izan zen eraikia. Garai batean ibaia gainditzeko igarobide bakarra izan zen.

HILARRIETAKO JENTIL-BARATZAK

Nafarroa Behereko mendi garaiena den Okabe mendiaren magalean Euskal Herrian dagoen Historiaurreko nekropoli garrantzitsuenetakoa dago, Hilarrietako harrespil-multzoa hain zuzen ere. Anitzak dira bertaratzeko dauden bideak, baina hiru dira gehien erabiltzen direnak. Lehena, Pedronen etxolatik ateratzen da, GR 10aren bide-seinale zurigorriak jarraituz harrespilen ondora eramango gaitu. Bigarrena, berriz, Irauko lepotik ateratzen dena dugu eta kasu honetan ere, Ezterenzubitik datorren GR 10aren markak segitu besterik ez dugu. Hirugarrena Zurzai lepotik ateratzen da, lehenik nekropolira igotzen da eta segidan Okabe tontorreraino. Hirurak errazak izanik, guk Zurzai lepotik ateratzen dena aukeratu dugu.





Lepoan bertan dagoen etxolaren ondoan ibilgailua utzi eta berehala ikusiko dugu Okaberren tontorra basoak marrazten duen lerro zuzenaren gainetik. Aurrez aurre dugun pagadi aldera zuzenduko ditugu gure urratsak hasieran ikusgaitz den zidor bate-tik. Berehala, lehen aldapari aurre egitean

bidea zabaldu eta basoan murgilduko gara. Lehen aldapa amaitu eta bidea leundu egi-ten da tarte batez, baina berehala azken al-dapari egin beharko diogu aurre. Pagadian marrazten den bidea desitxuratu egiten da azken zatian, baina berehala ohartuko gara zelaigunetik gertu gaudela.

Iratiko oihanaren tapiz berde koloretsua gure begien ninien gozamenerako agertuko zaigu



Hilarrietako harrespilak · TXUSMA PÉREZ AZACETA

Basotik ateratzean, Hilarrietako lepora igoko gara eta gertu izen bera duen nekropolia ikusiko dugu, goi-lautada txiki eta eder batean kokaturik. Zirkuluan jarritako 26 harrespil hauek santutegi baten moduko ingurunea osatzen dute eta airetik behatuz gero, Burdin Aroko (K.a. 800-300 urte) hileta-monumentu

hauek itxura magikoa duen postala erakusten dute. Egun monumentu hauek harrespil izenez ezagutzen baditugu ere, herritarren artean Jentil-baratza edo Mairu-baratze izenez ezagu ohi dira, euskal mitologiako pertsonaia horien ehorzketekin lotzen zituzten eta. Paisaia paregabe honetan gure arbasoek monu-


mentu hauen erdian gordetzen zituzten gizon eta emakumeen errautsak.

Gure historiaren lekuko isilak diren hileta-monumentu eder hauei bizkarra eman eta gertu ikusiko dugun Okabe mendirantz zuzenduko ditugu gure urratsak. Lehen zatian, GR 10aren bide-seinale zurigorriek erakutsiko digute jarraitu beharreko bidea, baina berehala markak ezker aldera utzi eta aldapa piko eta belartsu bati ekingo diogu. Larre zabal hauetan zehar ibiliz, ezker aldean, tontor itxura duen haitz-multzoko bat utzi eta aurrera segituko dugu Okabe mendia gailur zabal eta lauaren bila. Tontorra biribil samarra da eta bertaratu arte ez gara konturatuko iritsiak garela. Nafarroa Behereko tontorrik altuena den talaiatik ikuspegi ederraz gozatzeko aukera paregabea izango dugu. Abiapuntura itzultzeko tenorean, etorritako bidetik atzera egingo dugu. Luzaroan gure arbasoen errautsen pausagune izan diren Hilarrietako harrespilak atzean utzi eta pagadian zehar jaitsiko gara Zurzai lepora iristeko.

HARANBELTZKO KAPERA

Izurako enparantzatik abiatuko gara. Etxe bikainen artean maldan behera egingo dugu eta ezker aldetik hartuta Hiri behera edo Irizola auzora jaitsiko gara. Garai batean beilarientzat ospitale zaharra izan zena eta gaur egun aterpearen funtzioak betetzen dituen gure ezkerrean utziko dugu. Azken etxea atzean laga, errekastoa igaro eta errepedieraino doan xenda jarraituko dugu. Monolito baten ondora iristean errepedia hartuko dugu, beti ere, GR-65ari dagozkion bide-seinale zurigorriak segituz.

Gorantz egingo dugu Oztibarreko muino borobil eta gozoek eskaintzen duten ikuspegiarekin gozatuz. Bihurgune nabarmen batera helduz, haritz bikainez osatutako baso bat ikusiko dugu gure eskuinean eta bertatik





Haranbeltzeko kaperera

abiatuz harizti bikain batean murgilduko gara. Bide-seinale zurigorriak galdu gabe aurrera egingo dugu pista barrena. Maldan behera jaisten hasi eta berehala ohartuko gara Haranbeltzeko kaperaren presentziaz. Beste malda txiki bat igo eta Donatoen kaperara ospetsua izan zenaren ondoan izango gara.

Kaperaren atean alfabeto grekoko Alfa eta Omega hizkiak agertzen dira Jainkoa sinbolizatzeko

Izurako basoaren magalean, gizakiak zuhaitzak moztu eta argigune horretan priore-etxea, kaper bat, lau etxe eta zuhaitzik gabeko eremu bat eraiki zuen. Aipatua izan da XII. mendean "Hospitale Sancti de Arambels" agirian. Bertan dagoen etxe baten ateburuan, eraikuntza erreferentzia gisa, 984 urtea ageri da. Erdi Aroko arkitektura erromanikoaren adibide ezin hobea da eta Bariko San Nikolasi dedikatua zaio, bidaiari eta beilarien geriza-

tzaile. Bertan zeuden Anai Donatoek errebitzen zituzten beilariak.

San Nikolas priore-etxea osatzen zuten lau etxeak atzean utzi ondoren, berehala izango gara Jondoki Jakobe bidea utziko dugun bidegurutzean. Bertan dagoen metalezko langa bat gurutzatuko dugu eta Izurara iristeko bide-seinale horiak jarraitu beharko ditugu. Hasieran hurrizten artean pista zabaletik jaisten hasiko gara, baina berehala, ia altuerarik galdu edota irabazi gabe ehunka urte dituzten haritzen artean izango gara.

Hasierako bidezidorra pista bihurtuko da eta basotik ateratzean mendiaren magalean zehar aurrera segituko dugu. Bide-seinaleek azken malda igotzera gonbidatuko gaituzte eta ataka pare bat gainditu ostean, Izura aldera jaisten hasiko gara. Hourkamendia baserrira heldu aurretik, Oztibarreko haranaren ikuspegi osoaz gozatzeko aukera izango dugu. Baserrira atzean utzi eta Izura herria parez pare dugularik, errepidetik behera egingo dugu. Lehen bihurtunera iristean, eskuinetik belar artean irekitzen den xendatik beste errepidera jaitsiko gara, monolitoaren ondora hain

zuzen. Herrira itzultzeko bi aukera izango ditugu, lehena Irizola auzotik berriro pasatuz eta bigarrena, berriz, errepedea jarraituz.


ALDUDE IBARRA

Aldude herriko sarreran laxoko pilotaleku bat dago. Antzinako pilota modalitate hori laruzko eskularruez jokatzen zen, baina jadanik ez dira horretan jarduten. Frontoi honetan kokatzen da Perkain pilotari eta kontrabandista mitikoaren kondaira. Herriko plazatik abiatuko gara. Gure eskuinean XVIII. mendean Frantziako Iraultzaren garaian suntsitu zuten eta hurrengo mendean berreraiki zuten eliza utziko dugu. Pilotalekuaren ondotik pasa eta Jendarmeriaren aurretik aurrera egingo dugu errepede estuan zehar. Bi bidegurutzeekin topo egitean beti ezkerrekoa aukeratuko dugu eta baserri artean segituz aldapa motz eta piko bati ekingo diogu D58 errepidera helduz. Esnazu herrira igotzen hasi eta berehala gure ezkerreko beste bide asfaltatu txiki batekin egingo dugu topo. Nagusia utzi eta gaztainondoan artean irekitzen den bide honetatik

aurrera egingo dugu. Gorabehera txiki batzuk gainditu eta eskuinetik Esnazura igotzen den bide bat ikusiko dugu. Herrira igotzeko aldanpan gora egingo dugu. Herria ezagutu ostean, etorritako bidetik berriro bidegurutzera jaitsiko gara. Baserri artean zabaltzen den bide honen bazterretan urde beltzak ikusteko parada izango dugu eta tarteka Esnazu aldera ikuspegi ederra zabalduko zaigu. Igoera bukatzean bidegurutze batekin egingo dugu topo. Ezkerrekoa bide-seinale laranja balizaturik dago eta bertatik abiatuz gero Urepele aldera doan bidearekin bat egingo dugu.

Herri txiki honetako eliza eta Xalbador bertsolariaren omenez jarritako plaka bisitatuko ditugu

Guk aurrera jarraituko dugu eta Parapar lepora iristean ehiztarien "habi metaliko" batzuk ikusiko ditugu. Bidegurutze honetan ezkerreko bidea aukeratu dugu, balizaturik ez dagoena. Berehala borda pare bat eta artaldeak



larre berdeetan bazkatzen ikusiko ditugu. Bide asfaltatu estuak beherantz egiten du eta bihurgune batzuk egin ostean, berriro bide-seinale laranja aurkituko ditugu, Parapar lepora

heldu aurretik ikusi ditugunak hain zuzen ere. Puntu honetan elkartzan dira bi bideak. Pare pare, gure mendean berehala antzemango ditugu Urepele herriko eliza eta etxe zuriak. Marka laranja jarraitu eta herrira heldu aurretik zubi pare bat igaroko dugu.

Herri txiki honetako eliza eta Xalbador bertsolariaren omenez jarritako plaka bisitatuko ditugu. Xabier Letek "Urepeleko artzaina" kanta ezagunean oso ondo irudikatu zuen Fernando Aire Xalbador bertsolari behenafarra. Aldude bailarako Urepele herrian jaio zen 1920an eta 1976an bere omenaldi egunean hil zen bihotzkeoak jota. Bertsolari liriko eta poetikoa; bere bizitza, familia, baserri, fede eta naturari buruz kantatu zuen. Hizkuntza galtzeari buruz eta Ipar Euskal Herriaren kontzientzia ezaz moldatu zituen bertsoak, hunkigarriak izateaz gainera, gogorak eta zorrotzak dira oso.

Ibilbidearekin jarraituz, bigarren zubia gainditu eta eskuinetik ateratzen den bide asfaltatua jarraituko dugu. Hemendik aurrera bide-seinale berde-horia ikusiko ditugu. Baserri eta borden artean pasatzen den bide zahar honen zati batzuetan oraindik bidea mugatzen duten harrizko zatiak ikus dai-

Aldudeko paisaia





Arberoako muinoak

tezke. D58 errepidera iristean aldapan gora kilometro erdi eskas bete eta eskuinera, Aldude aldera zuzentzen den bidea hartuko dugu. Herriko plazara iristeko ibilaldi honen hasieran bete dugun kontrako bidea egingo dugu.

ARBEROAKO MUINOAK

Arberoa Nafarroa Behereko lurralde historikoa da; Aiherra, Izturitze, Mehaine, Donostiri, Donamartiri eta Heleta udalerriek zegozkien lurrek osatutako bizkonderria. Aiherra, euskarazko "eihera", errotatik dator. Duela mendebate inguruetan 14 errota baldin bazeuden,

gaur egun bakarra geratzen da. Izturitze herrira iritsi eta bertako plazak multzo atsegina osatzen du. Izturitze eta Otsozelaia harpeak igaro eta Donamartirira helduko gara. Herri honetan Erdi Aroan eraikitako etxe askok zutik diraute oraindik. Herria bustitzen duen Aran ibaiak auzoko Donostiri herritik ere pasatzen da. Herriaren sarreran bi etxe infantzoi eta Arberoako etxe handi noblea aurkituko ditugu. Herriaren behealdean, Sorhaburu gaztelua bisita dezakegu. Heletara abiatu aurretik, Mehaine herrian Erdi Aroko gaztelua ikus dezakegu. Heletan amaitzen da Arberoako harana, Baigura mendiaren oinean.

Laurehun metro inguru dituzten mendi-muinoak Donamartiri, Donostiri, Mehaine herrien gaindi ageri dira

Herriko plazan dagoen aparkalekuan utziko dugu ibilgailua eta elizaren ondotik Oragarreko norabidean ateratzen den errepidea jarraituko dugu. Berehala ikusiko dugu 22. ibilaldiari dagokion egurrezko seinalea eta ibilbide osoan zehar marka horiak izango ditugu bidelagun. Etxe eta baserri artean beteko dugu lehen zatia eta bidegurutze guztietan seinaleei kasu eginez



gorantz joko dugu. Goi aldera iristean zuzen segi eta gaztainondoen baso bat gure eskuinera utziz berehala helduko gara beste bidegurutze batera eta bertan marka horiek lagunduko digute bidea aukeratzen. Hemen errepidea utzi eta Oyhanbouroua baserria aldera zuzenduko gara. Bide erosoak Oragarreko iratzte zelaiak zeharkatzen ditu eta bertatik ikuspegi ederraz gozatzeko aukera izango dugu ardiek eta behiek zelai berdeetan lasai bazkatzen duten bitartean. Pixkanaka mendi gandorreen zehar beherantz egingo dugu erreka aldera. Beheko aldera iristean egurrezko seinalea ikusiko dugu eta bertan Otso erreka idatzita. Iratzeen artean zabaltzen



den bidetik zuzen jarraituko dugu, ezker eta eskuinetik ateratzen direnak utziz. Puntu honetan markak ez dira agertzen eta kontu handiz ibili behar da ez galtzeko. Gertu antzematen den erreka bilatuko dugu eta bertara iristean ikusiko ditugu seinaleak.

Erreka zeharkatzeko beharbada oinetakoak kendu beharko ditugu, baina kontu izanez gero inguratu eta jauzi txiki bat eginez beste aldera pasako gara. Eskuinetik aurrera segi eta iratzeen artean zabaltzen den bidetik gorantz egingo dugu. Aldapa pikoa eta motza da baina bustita edota lokaztuta badago kostata ibiliko gara. Bidea tarteka desitxuratu egiten

da eta seinaleak ere desagertu, baina logika erabiliz berehala lortuko dugu bide nagusia aurkitzea. Pixkanaka lehen galdu dugun desnibela irabaziko dugu eta errepidera iristean arnasa lasai hartzeko beta izango dugu. Kilometro batez errepidean zehar ibili eta gure ezkerrera ateratzen den beste pista hartuko dugu. Egurrezko ataka gainditu eta laster zaharberri duten borda bikain baten ondora iritsiko gara. Toki hau inguru aproposa da Arberoako harana ia bere osotasunean ikusteko. Laurehun metro inguru dituzten mendi-muinoak Donamartiri, Donostiri, Mehaine herrien gaindi ageri dira, hauen magalean baserri eta

borda aintz barreiatu daudelarik. Ikuspegi honetaz gozatu ostean, metro batzuk atzera egin eta bide-seinaleek erakusten diguten norabidean aurrera egingo dugu. Baserri baten ondora iristean egurrezko eskailera batzuek hesia gaintzen lagunduko digute igoeran erabili dugun ibilbidearekin bat eginez. Hemendik herrira hasiera hartu dugun errepidean zehar jaitsiko gara.

AGRAMONDARREN LURRALDEA

Nafar leinu hau Nafarroako erreinuari lotuta egon zen XII. mendetik XVI.era eta politikoki

Izurako inguruak





Iparlako gailurreria Tutulua ingurutik

XV. mendean eragin handia izan zuen. Agramondarren jatorrizko etxea Burgue-Erreitin zegoen, baina Aturri ibaiak itxasorantz zuen irteeragatik, agramondarrak sortetxea utzi eta XIV. mendean Bidaxuneko gaztelura etorri ziren bizitzera eta harrez geroztik agramondarren leinu nagusiaren egoitza bihurtu zen. Eragin handiko familia izan zen, bai inguruko lurraldeetan bai Nafarroako erresumaren bikalaeran ere.

Elizaren atari nagusiaren paretik Jondoki Jakobe kale nagusian zehar abiatuko gara. Etxe bikainen artean emango ditugu lehen urratsak eta biribilgunera iristean, eskuinera joko dugu Gixune eta Samatze aldera doan errepidea birlatuz. Bide bazterretik segi eta berehala judutarren hileriarekin egingo dugu topo. Irekita dago eta bertan gaztelerez eta hebraieraz idatzitako hilarriak ikusiko ditugu. Beherago, errepide nagusia utzi eta eskuinera ateratzen den bidetik

Bidaxuneko portura iritsiko gara. Biduzeren paraleloan doan pistatik barna erraz helduko gara ibai zeharkatzen duen zubiaren ondora.


**Judutarren hilerrian
gaztelerez eta hebraieraz
idatzitako hilarriak
ikusiko ditugu**



tziak garraiatzen zituzten gabarrak tiratzeko idiek bide hau erabiltzen zuten. Alde batean arto sail handiak ikusiko ditugu eta ibaiaren ertzean makal, lizar eta beste zuhaitz mota asko. Tarteka atsedenerako mahairen bat edo beste aurkituko dugu eta aurrerago Lihuri ibaiak bere urak Biduzera isurtzen dituen lekua. Kiwi landaketa handi bat atzean utzi eta Akamarreko portura iritsiko gara.

Herrira igotzeko seinale horiak ikusiko ditugu, baina guk ibaiak gurutzatzen duen zubia bilatu, hau gurutzatu eta aurrera joko dugu. Bidaxunera doan errepidean barna metro batzuk bete eta berehala, lehen bidegurutzean ezkerreara hartuko dugu. Abiapuntura iritsi arte marka horiak bidelagun izango ditugu eta zalantzarik izanez gero, beti zuzen doan bidea aukeratu behar dugu. Arto sail handien artean irekitzen den errepide txiki honetatik aurrera egingo dugu, noizean behin baserri batzuen ondotik pasatuz. Pixkanaka jaisten hasi eta eskualdearen ikuspegi zabalaz gozatzeko aukera izango dugu. Etxe multzo bat atzean utzi eta bidegurutze batera ailegatuko gara, gurutze eder baten ondora.

Bide-seinaleak jarraituz, eskuinetik aldapa jaisten hasiko gara eta bihurtune pare bat pasa



ondoren, ezkerretik Bidaxuneko lehen etxeetara helduko gara. Elizaren dorrea erreferentzia puntu bezala hartuz, Lihuri ibaiaren ondora jaitsi eta zubi zaharra gurutzatuz Robyren errota ikusiko dugu. Herritik gertu maldan gora abiatuko gara eta eskuinera ateratzen den edozein kaletatik Jondoki Jakue kale nagusira igoko gara. Orain bakarrik gaztelua bisitatzea falta zaigu. Horretarako elizara itzuliko gara eta gertu dagoen atsedenekua bilatuko dugu. Parez pare, Euskal Herriko historiaren zati bat izan den Agramondarren gaztelua ikusiko dugu.

Agramondarren gaztelua



Gertu Agramondarren gaztelua eta atsedeneku bat ikusiko ditugu. Gazteluari bisita azken unerako utzi eta aurrean dugun zubia gurutzatuko dugu. Berehala, eskuin aldera ateratzen den hartxintzarrezko bidea jarraituko dugu. Etxeak atzean utzi ondoren, Biduze ibaiaren paraleloan doan bidea belarrezkoa bihurtuko da, gorabeherarik gabe bost kilometroz Akamarreko porturaino heldatuz. Garai batean, ibaian zehar merkan-


LOS CAZAFANTASMAS

MONTAÑEROS A LA BÚSQUEDA DE COTAS DE 3000 M NO RECONOCIDAS EN LA LISTA DE BUYSE

En la década de los 90 del siglo pasado, tras la elaboración de la lista de Juan Buyse sobre los tresmiles de los Pirineos y basado en su regla más objetiva, un grupo de montañeros comprueban los picos reconocidos y, también, cumbres que no salen en esa lista y que tendrían que constar.



TEXTO Y FOTOS



Carles Giné-Janer

Miembro de los cazafantasmás. Montañero desde los 15 años, ha subido todos los 3000 "oficiales" de los Pirineos, 10 picos de más de 4000 m en Alpes, Atlas y Andes, y cuenta con dos cumbres de 5000 m en Andes y también, en la misma cordillera, con el Aconcagua, de 6962 m.

Llegando a la cima del Nudillo del Perdido
AUTOR: CARLES GINÉ-JANER

LAS CUMBRES MÁS ALTAS DE LOS PIRINEOS

Todos los montañeros aficionados a los Pirineos conocen que las cumbres más altas de esa cordillera pasan de los 3000 m. Eso sí, basados en el sistema métrico, y es que otra historia sería si se midiera con otros métodos. Pero aquí se cuenta por metros desde la definición del "Sistema métrico de pesas y medidas" en la Francia revolucionaria de 1799. Y en los Pirineos, decíamos, las cimas más altas pasan de los 3000 m pero... ¿cuántas son? Aquí empieza la polémica.

La primera conquista difundida de un pico superior a esa altura, el Turon de Néouvielle o Neuvielha, fue en 1787, por parte de Henri Reboul y Jean Vidal, con un interés más geográfico que montañero. Destacar que solo había pasado un año de la conquista del Mont Blanc, fecha que se acostumbra a destacar como del inicio del alpinismo.

Sábado, 20 septiembre de 2013. No suena el despertador en el refugio de la Casa de Piedra, en Panticosa. Tres miembros de los cazafantasmás y la periodista de La Vanguardia, Rosa M. Bosch, nos levantamos más tarde de lo previsto para una nueva jornada montañera. Pero no vamos a subir un pico por el placer mismo que eso conlleva. O no solo por eso. Vamos a constatar la posibilidad de que sea una nueva cumbre de más de 3000 m que no sale en la lista de Juan Buyse. ¿Por qué?

A partir de ahí, se crea mucho interés por parte de los montañeros franceses en conquistar las cumbres más altas de los Pirineos durante el siglo XIX. Y después, ya en el siglo XX (con la excepción de Chausenque en 1854), aparecen las primeras listas de picos de más de tres mil metros de los Pirineos.

Se puede afirmar, y creo que sin disparidad de opiniones, que en los Pirineos hay 129 cimas principales que pasan de los 3000 m. Y ahí está claro que no aparecerá ninguna nueva, ni se va a rebajar el número de esas 129 cumbres. Pero... hay otras cotas, cumbres poco relevantes, donde el debate aún está abierto.

Después de desayunar, a las 7:30 h nos ponemos en marcha por la ruta normal de los picos de los Infernos hacia el collado de Pondiellos. Pero si vas al monte con Patxi y Alfredo, difícilmente no harás una ruta circular. Así que toca desviarse de dicha ruta para ir, desde la Mallata Baxa d'as Argualas, a unos 2200 m, hacia los ibones de Arnales. A pesar de que cuesta localizar el desvío, el sendero después es claro. Evidentemente, aunque es un sábado de verano con buen tiempo, por aquí no va nadie.

SOBRE LISTAS DE PICOS DE 3000 METROS

Chausenque, destacado pirineísta del siglo XIX, en un apéndice de sus obras, hizo una recopilación no exhaustiva de altitudes, comprendiendo pueblos, collados y cimas. Allí nombra una serie de 32 picos de 3000 m.

Ya en el siglo XX, empiezan los listados de cumbres de más de 3000 m en los Pirineos, pero las primeras listas que ahora se comentarán no tienen pretensión de ser exhaustivas:

En 1932, Lorenzo Almarza, en la revista Aragón, publica una lista de picos aragoneses y también de algunos franceses próximos a la frontera. Esta lista comprende 57 cimas.

En 1935, el boletín mensual de la *Unió Excursionista de Catalunya* está dedicado íntegramente a los tresmiles pirenaicos. Hacen una lista "exhaustiva" de 5 cumbres de esa altura en Cataluña, y hacen mención de otros picos de esa altura situados en el resto de la cordillera. En total se citan 39 cimas.


Se llega así a 1973, cuando Salvador Morales publica, en el Boletín de Montañeros de Aragón nº 22, una lista de 92 picos aragoneses.

A partir de entonces, llegan las listas que pretenden abarcar todos los Pirineos:

En 1975, Josep Silva elabora una primera lista de tresmiles con la intención de publicarla en la revista de la federación catalana, *Vèrtex*. El problema es que, por diversos motivos, esa lista no se publicará hasta 1983.

Ese mismo año 1975, Salvador Acaso publica en la revista *Cimas* una lista de tresmiles con 104 cumbres. La misma lis-





Portada del folleto de la 12ª edición de la lista de Feliu Izard, en ocasión de la finalización de los 3000 por parte de Aleix Barberà, actual depositario del piolet. Sin cambios respecto a las listas anteriores

ta, solo corregida en los errores toponímicos y de altitud, se publica en septiembre de 1980 en el Boletín de la Agrupación Montañeros de Bilbao.

En 1976, Juan María Feliu publica una segunda lista que tenía un total de 110 cumbres. En 1978, el mismo autor publica un nuevo folleto, ahora con 115 cumbres.

Justo en el año intermedio, en 1977, mi consocio del *Centre Excursionista de Lleida*, Manel Cortés, publica en el boletín del mismo otra lista de tresmiles, que cuenta con 122 picos.

Y en el mismo 1978 es cuando aparece, por primera vez, una lista de tresmiles en esta misma revista *Pyrenaica*. Se trata de la lista que propuso Sabino Echeandía, con un total de 125 cimas.

Las décadas de los 80 y los 90 serán especialmente importantes para las listas de 3000, con la configuración de las dos más reconocidas hasta el momento actual, y vinculadas a dos fuertes personalidades: Feliu Izard y Juan Buyse. Pero antes de hacer referencia a ellas mencionaremos otras dos listas: la primera del siglo XX, publicada por el francés Jacques Jolfre en la revista *Revue Pyrénéenne* en 1980 y que incluye un total de 132 picos. Y la segunda, con 138 cumbres, publicada en 1983 por Joan García en el Boletín de su club: el *Club Excursionista Pirenaic*, de Barcelona.

Hay constancia y sospecha de otras listas con origen francés, pero no publicadas, aunque sí más o menos conocidas: una es la que realizó anteriormente Henri Baudrimont, y otra sería la de Jean Arlaud. Aunque de esta última no se ha encontrado constancia, hizo referencia a ella cuando, al alcanzar el Pico Heïd, dijo que era su último tresmil. De existir, sería de los años 30.



Vista de la cresta que acaba en la Pale Crabounouse Norte · AUTOR: JOSEBA CALZADA

Por la ruta de los ibones de Arnales, después de pasar por los ibones, se puede llegar al collado de Saretas. Hay camino claro hasta los ibones. Después, quedan algunos hitos. En el collado, a 2917 m de altura, la ruta se vuelve a unir con la senda que procede del collado de Pondiellos, más conocido. Ya está a la vista de los montañeros nuestro objetivo.

FELIU IZARD Y JUAN BUYSE

En 1985, y en ocasión de su ascensión número 100 a un 3000 de los Pirineos, Feliu Izard publica un folleto con un listado de tresmiles que se agota rápidamente y hace dos ediciones más el mismo año. Estas tres primeras ediciones comprenden 148 picos. En la actualidad, esa lista ya va por la novena edición, cuenta con 161 cumbres y es reconocida por el *Centre Excursionista de Lleida*.

Destacar aquí que los socios que consiguen completar esa lista, son acompañados en su última ascensión y se les hace entrega de un piolet de madera que, se dice, perteneció al pionero Juli Soler i Santaló. Se le añade una plaquita metálica con el nombre de dicho

montañero, el cual será depositario de dicho piolet hasta que otro socio o socia acabe la lista.

Aunque no tiene unas reglas en las que basarse para aceptar o no unos picos aparte de su presencia, historia, reconocimiento y categoría, es una de las dos listas actuales y tiene mucha importancia porque algunos de los nombres que Izard dio a algunas cumbres se han establecido como las denominaciones más reconocidas en la actualidad.

Parece ser que Izard y Buyse no se llegaron a conocer personalmente pero su enemistad fue pública y notoria.

Juan Buyse, antiguo miembro de las SS e integrante de los voluntarios belgas en el ejército nazi que, tras la segunda guerra mundial,



Portada del folleto de 3000 de Juan Mari Feliu, en su edición de 1978 · AUTOR: PATXI TERMENÓN





Rapelando hacia la brecha · AUTOR: ALFREDO GOITIA

se instaló en Siurana, un pequeño pueblo en el interior de las modestas montañas de la provincia de Tarragona, dedicó los últimos años de su vida a realizar lo que quería que fuese la lista oficial de picos de 3000 metros de los Pirineos. Comenzó publicando la primera de sus listas en 1986, concretamente en la revista *Muntanya*, órgano del *Centre Excursionista de Catalunya*, con 153 tresmiles, añadiendo 5 cumbres a la lista precedente de Izard: Tuca de Llardaneta, Espalda de Chausenque, *Pic du Milieu*, Punta de *Saint-Saud* y Clarabide Oriental. Y cambió también diversos nombres.

En 1987, Juan Buyse intenta publicar en la revista *Os Pirineos*, de la Federación Aragonesa de Montañismo, una segunda lista que no llegó a publicarse porque la revista cesó. Esa lista comprendía 164 cumbres.

El año 1988 verá el nacimiento del que Juan Buyse denomina el "Equipo de los tresmiles". A ese efecto, reúne a una serie de montañeros de las dos vertientes para establecer una lista definitiva, con unas reglas para admitir o no picos en esa lista. La

revista *Pyrénées*, ese mismo año, publica la primera lista consensuada de ese equipo, que comprende un total de 195 picos. Las tensiones, especialmente por el tema de los nombres, dentro del equipo, empiezan ya desde el principio, y algunos montañeros se dan de baja del mismo.

